

SUBIRANOTASUN HUMANITARIOARI BURUZKO II MINTEGIA

“Subiranotasun Humanitarioaren Praktika Afrikan”

Gasteiz, 2025eko Irailaren 18a

JARDUNALDIAREN LABURPENA

SARRERA

2018-2023 aldirako Ekintza Humanitarioko Estrategia 2024-2026 aldirako luzatua, erkidegoei eta eragindako pertsonen kontuak ematearen aldeko apustua egiten da, baita lokalizazioaren aldekoa ere. Era berean, bere "2. Ardatza: Erakunde humanitarioak indartzea" ekimenak Euskadiko zein tokiko erakundeak indartzea du helburu, krisi humanitarioko egoeran dauden biztanleei modu eraginkorrean lagun diezaieten.

Krisi humanitarioak dauden lurraldeetako xede-biztanleria eLankidetzatik bultzatzen den ekintza humanitarioaren erdigune izan dadin, azken urteotan hainbat kontzeptualizazio-, ikerketa-, sistematizazio-, tresna-garapen- eta prestakuntza-ekintza egin dira partaidetzaren eta kontu-ematearen eta lokalizazioaren arloan. Aldi berean, tresna horiek Afrikako, Latinoamerikako eta Palestinako hainbat testuingurutan inplementatzen lagundu da, Subiranotasun Humanitarioaren kontzeptu ulergarriago batera iritsi arte. Honako ekintza hauek nabarmendu behar dira:

- 2018 eta 2020 urteen artean xede-biztanleriak izandako partaidetzaren eta kontuak ematearen errealitateari buruzko azterlana
- Erakundeen eguneroko praxian partaidetza eta kontu-ematea baloratzeko eta sustatzeko tresna eta metodologia
- Euskal eta tokiko erakundeentzako tresnari buruzko prestakuntza
- Tresna pilotatzeko ariketa Guatemalan, Costa Rican, Perun, Palestinan, Libanon eta Kongoko Errepublika Demokratikoan, eta esperientziak itzultzea
- Lokalizazioari eta inklusioari buruzko prestakuntza
- 2020 eta 2023 urteen artean egindako laguntza-prozesuaren mugari nagusiak jasotzen dituen dokumentua
- Subiranotasun Humanitarioaren I. Mintegi Birtuala

Hainbat erakunde humanitariok ekimen hauetan parte hartu dute, eta batzuek lanean jarraitu dute Partehartzea Kudeatzeko eta Kontuak Emateko Sistema Integralak (SIGPyR) eta Subiranotasun Humanitarioa Kudeatzeko Sistema Integratuak (TAHUSO) inplementatzea lortu arte. Zehazki, Afrikan, lau erakundek lan handia egin dute prozesu horietan, ikuspegi eta testuinguru espezifikoetatik, eta aberastasun handia ekarri diote Subiranotasun Humanitarioaren kontzeptuaren praktikan aurrera egiteari. Esparru horretan kokatzen da Subiranotasun Humanitarioari buruzko II. Mintegi Birtuala.

Informazio gehiago izanez gero, [eLankidetzako](#) webguneko Ekintza Humanitarioko atala ikustatu dezakezu.

HELBURUAK ETA PROGRAMA

Subiranotasun humanitarioari buruzko bigarren topaketa birtual hau telematikoki egin da 2025eko irailaren 18an, "Subiranotasun Humanitarioaren Praktika Afrikan" izenburua izan duelarik. Hiru helburu izan ditu:

1. Afrikako lau erakunde eta entitatearen Subiranotasun Humanitarioa kontzeptualizatzeko eta ezartzeko esperientziak ezagutzea eta horiei buruz eztabaidatzea.
2. Subiranotasun humanitarioa etorkizunean garatzeko aukerak identifikatzea, xede-populazioen zentraltasuna aitortzeko prozesuekin, ezagutzaren kokapenarekin eta ekintza humanitarioaren deskolonizazioarekin lotuta.
3. Subiranotasun Humanitarioaren kontzeptua eta praxia komunitate humanitario globalera hedatzea.

Hasiera batean erregistratutako 179 pertsonetatik saioan 88ek hartu dute parte, 74 erakunde humanitariotakoak, Espainiar Estatuko 33 erakunde, Afrikako 38 erakunde, Europako 2 erakunde eta Latinoamerikako 1 erakunde. Horretaz gain, Etiopia, Niger, Kenya, Kongoko Errepublika Demokratikoa,

Saharar Errepublikar Arabiar Demokratikoa, Euskadi eta Espainiako beste herri batzuetatik konektatu diren ikasleak, ikertzaileak eta partikularrak ere izan dira.

Aurkezpenak hurrengo pertsonak egin dituzte:

- Eunice Achieng Ngwawe: 2007an erregistratutako HESED-Africa GKEko zuzendaria. Nairobiko kokaleku informalean bizi diren hiri-errefuxiatuen eta hiriguneetako eta landa-eremuetako komunitate kalteberen premiei eta asmoei erantzuten die osasunaren, gizarteratze ekonomikoaren, laguntza psikosozialaren edo genero-indarkeriaren erantzunaren arloan.
- Issoufou Soumana: DIKOko zuzendari exekutiboa, 2006an sortutako Nigerko erakundea. Eskualdeko ekimen bat sustatu du tokiko eragileek ISLAH Sahel-ean (ISLAH- "Initiative sahélienne sur la localisation de l'aide humanitaire") erantzun humanitarioan parte har dezaten bultzatzeko, bai eta Nigerreko erakundeak harremanetan jartzeko plataforma digital bat ere.
- Fatma Mehdi: SEADeko Lankidetzako ministroa eta Saharako Emakumeen Batasun Nazionalako presidentea 17 urtez. SEADeko Lankidetzako Ministerioak sahararren bizi-kalitatea hobetzen laguntzen du, gobernuko eta gobernuz kanpoko erakundeekin batera lan eginez garapen iraunkorra eta giza eskubideen babesa sustatzeko. Saharako kausaren ulermena eta laguntza ere sustatzen da, SEADen eta beste herrialde batzuen arteko kultura-, hezkuntza- eta merkataritza-trukearen bidez.
- Chejna Mohamed Mehdi: SEADeko Lankidetzako Ministerioako idazkari Nagusia.
- Kunom Hailu: 4YBIN Tigrayko gizarte zibilaren erakundearen sortzaile eta zuzendaria. Erakundea 2021ean sortu zen guda garaian eta erresilientzia indartzeko eta komunitatea berreskuratzen laguntzeko laguntza humanitaria eta garapen-programak ditu ardatz.

Dinamizazioa Fernando Almansaren eskutik izan da, aholkulari humanitario independentea eta tokiko eta nazioarteko GKEentzat eta lankidetzako agentzientzat Ekintza Humanitarioan, Garapenean eta Erakundeen Kudeaketan espezializatutako Coacha.

Azkenik, hauek dira mintegiaren ekarpen eta konklusio batzuk:

1. Subiranotasun Humanitarioa ez da kontzeptu abstraktu bat, tokiko erakundeen praktika eta esperientzietatik sortzen baita.
2. Subiranotasun Humanitarioaren lau ildo nagusiak honako hauek dira: partaidetza eraldatzailea, inklusio osoa, autoritatearen zentzuan egiletasuna eta benetazko lokalizazioa.
3. Subiranotasun Humanitarioa ekintza humanitarioaren subjektu diren populazioek eta haien tokiko erakundeek, ekintza humanitario horren irizpideak, estrategiak eta jardunak era parte-hartzailean, inklusiboan, autonomoan eta arduratsuan erabaki eta definitzeko duten eskubide eta gaitasun eraginkor gisa definitu daiteke. Era berean, populazio horrekin esku hartzen duten eragile humanitario guztien erabateko kontu-emanetara eskatzeko eskubidea dela esan daiteke.
4. Subiranotasun Humanitarioko prozesuek Ekintza Humanitario ororen erdigunea pertsonak direla onartzen dute, haien beharrezkoak, itxaropenak eta lehentasunak kontuan hartuta, beraiek identifikatzen dituzten bezala; eta hortik abiatuta egituratzen dira estrategia eta programa humanitarioak.
5. Subiranotasun Humanitarioa, partaidetza eta kontu-emanen prozesu eraldatzaileak dira, erakundeen identitateari estuki lotuta daudenak.
6. Jada, zenbait erakundeek Subiranotasun Humanitarioaren bidean urrats erabakigarriak hartu dituzte, izan ere, beren irizpide, politika humanitarioak eta estrategiak garatu dituzte; horrek nazioarteko agentzia eta finantzatzaileekin maila handiagoko solasaldia izatea ahalbidetzen dielarik.
7. Subiranotasun Humanitarioa kudeatzeko, beharrezkoa da partaidetzaren ikuspegia aldatzea, lankidetzako horrek askoz ere gehiago kontuan har ditzan tokian-tokian planteatutako beharrak,

lehentasunak eta nahiak, eta ez ditzan nazioarteko eremutik ezarritako irizpideak inposatu. Horrek nazioartekoaren eta nazio- eta toki-arloaren arteko botere-harremanak berronkatzea dakar.

8. Subiranotasun Humanitarioaren termino eta praktika espezifikoak testuinguruan kokatzea garrantzitsua da, testuinguru bakoitzak aplikazio indibidualizatua eskatzen baitu.
9. Hezkuntzan eta komunikazioan tokiko kultura eta hizkuntzetatik lan egitea garrantzitsua da, eta prozesu horiek guztiak dokumentatzea, beste erakunde batzuekin partekatu ahal izateko.
10. Partaidetzaren egoera eta Subiranotasun Humanitarioaren egoera ezagutzeko tresna zehatzak izatea garrantzitsua da; horretarako, eLankidetzaren webgunean edo Fernando Almansaren webgunean eskuragarri dauden SIGPyR edo TAHUSO bezalako tresnak erabilgarriak dira.
11. Prozesu guzti hauetan gazteak inplikatzea oso garrantzitsua da, ekintza humanitario bat planteatzen, energia eta ikuspegi berriei eta populazioetan arreta handiagoa jarrita.
12. Benetako partaidetza emateko eta erabat inklusiboa izateko behar adina baliabide esleitu behar dira. Hortaz, entzuteko, itzulpenak egiteko, hizkuntza eta komunikazio-moduak egokitzeko etab. denbora eskaini behar da.
13. Agentzia emaileek eta nazioarteko erakundeek ezartzen dituzten irizpideak malgutu behar dira, bai eta finantzaketa-metodoek garatu duten gehiegizko sofistikazio teknikoak murrizten ere, biztanleriatik eta toki-erakundeetatik irizpideak lehenesteko.
14. Ekintza humanitarioaren egungo ereduak, batzuetan, biztanleriaren premiek ekintza humanitarioa gauzatzeko moduak berak biztanleria horren duintasuna kaltetzen duen egoeretara eramaten dutela onartzen da. Horrek ez luke inoiz horrela izan behar, eta Subiranotasun Humanitarioa bide egokia da egungo sistemaren deformazio horiek saihesteko.
15. Subiranotasun Humanitarioa krisietako larrialdiaren fase espezifikoetik askoz harago hedatzen da, eta pertsonak krisi humanitarioen pean bizi diren testuinguru zabaletara begiratzen du.
16. Subiranotasun Humanitarioak, bere ezarpenean, erronka handiak planteatzen ditu, baina bide zuzena da eta horiei heldu behar zaie, etikoki eredu handiagoa baita eta funtzionatzen baitu, populazioen duintasuna erabat errespetatzen baitu.
17. Tigrayko Ikasketa Humanitarioen Zentroa sortzea, Mekelleko Unibertsitatearekin batera, 4YBINek, Egoaizia eta Deustuko Unibertsitatearekin batera, bultzatutako Subiranotasun Humanitarioa sustatzeko prozesurik garrantzitsuena da.
18. SEADen, Subiranotasun Humanitarioa praktikan jartzeko, Lankidetzaren Ministerioak SEADen lankidetzaren politika eta -estrategia oinarritzen duten lehen irizpideak lantzen ari da, eta lankidetzaren eragile guztiek bertan kokatu beharko lukete.
19. Kenyan, TAHUSO tresnaren aplikazioak HESEDi erakunde gisa hobeto ezagutzeko eta ahulenak diren elementuak hobetzeko aukera eman dio. Erakundearen kontzienteagoa da orain, eta komunitatearen premiekiko harkorragoa.
20. Nigerren, DIKOk nazio- eta eskualde-mailako aktore rolean duen konfiantza indartu du. Beren esperientzia partekatzen dute beste erakunde batzuen prestakuntzaren bidez, Nigerren erakundeak harremanetan jartzeko plataforma digital bat bultzatu dute, eta eskualdeko ekimen bat sustatu dute tokiko eragileek Sahelen erantzun humanitarioan (ISLAH) parte har dezaten bultzatzeko.

SAIOAREN BIDEOA ETA DOKUMENTAZIOA

[Esteka honetan](#) astekarian erabilitako materialak eta saioaren grabazioa eskuragarri daude.